BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5183

AGINDUA, 2011ko urriaren 18koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, 2011ko apirilaren 20ko Zor Publikoaren jaulkipenaren zenbatekoa beste berrogeita hamazazpi milioi eta bostehun mila eurorekin handitzeko dena.

Otsailaren 8ko 13/2011 Dekretuak Euskadiko Zor Publikoaren jaulkipen bat edo hainbat egiteko edo zorpetze-eragiketak hitzartzeko baimena ematen du, horiek prestatzeko modua edozein dela ere, eta gehienez 1.187.309.799 euroko baliokidea izango den zenbatekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legeak 16. artikuluko 1. paragrafoan Gobernu Kontseiluari emandako baimenaren arabera.

Arestiko Dekretuaren Xedapen gehigarriak ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legearen 30. artikuluko 3. paragrafoan agindutakoren arabera, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuari dagokio, balore gisako zor publikoa jaulkiz gero Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko agindu bidez, dekretu honetan onetsitako zorpetze-eragiketak egiteko tresna eta modalitate zehatzak zehaztea, bai eta finantza-baldintzak eta, orobat, dekretu honetan eragiketei buruz aipatu ez diren gainerako ezaugarriak zehaztea ere, betiere dekretuaren aurreikuspenen barruan.

2011ko apirilaren 20ko Zor Publikoaren jaulkipena handitu egingo dela erabaki da, merkatuaren baldintzak aprobetxatzearren eta, halaber, etorkizuneko kudeaketa-kostuak erraztearren, zenbatekoak aurretiaz zeuden zor-erreferentzietan taldekatzearen bitartez.

Hori guztia kontuan izanik, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Beste berrogeita hamazazpi milioi eta bostehun mila (57.500.000) euro emango dira 2011ko apirilaren 20ko Zor Publikoa jaulkitzeko zenbatekorako. Zor Publiko hori Euskadik 82.000.000 de euroko Zor Publikoaren jaulkipena egiteko eta horren zenbait ezaugarri ezartzeko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2011ko apirilaren 18ko Aginduaren bitartez baimendu zen.

2. artikulua.– Honako ezaugarri hauek izango ditu handitze horrek:

a) Zenbateko nominala: 57.500.000 euro.

b) Jaulkitze-prozedura: kokapen pribatua.

c) Ordainketa-data: 2011ko urriaren 27a.

d) Ordainketa-prezioa: balio nominalaren % 103,079426.

e) Interesak eta amortizazio-data: Euskadik laurogeita bi milioi euroko zor publikoaren jaulkipena egiteko eta horren zenbait ezaugarri ezartzeko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2011ko apirilaren 18ko Aginduan ezarritakoak.

Handitze honetako bonuek apirilaren 18ko Aginduan jaulkitako bonuen eskubide berberak izango dituzte.

f) Baloreen adierazpidea: Kontuan eginiko oharrak.

3. artikulua.– Harpidetza.

Jaulki beharreko jaulkipen-balioen harpidetza jaulkipena egiteko mandatua duen erakundearen edo erakundeen bitartez bideratuko du Ekonomia eta Ogasun Sailak. Erakunde horiek horretarako gaituta daude, baloreen merkatuaren indarreko araudiaren arabera.

4. artikulua.– Gaikuntza.

Finantzetako zuzendariari baimena ematen zaio zorpetze-eragiketa hau burutu ahal izateko beharrezkoak diren kontratuak eta gainerako eranskinak eta dokumentu osagarriak sinatzeko.

5. artikulua.– Harpidetzaren, interesen eta jaulkipenaren amortizazioaren ordainketa Bilboko Burtsako Elkarte Kudeatzailearen Konturako Ohartarazpenen Zerbitzuaren bidez egingo da, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari buruzko irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 37. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 18a.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.